

LIBURUAK KATALOGATZEN

Eusko Jaurlaritzak emandako enkarguz, Arantzazuko Liburutegiko liburuak katalogatzen ari dira Naiara, Olaia eta Vanesa, gero sare zabal batean jendearen eskura jartzeko. 19. mendera artekoak katalogatzea dute eginkizuna. 15. mendetik 19. era bitartekoak.

Liburua hartu eta fitxa nahiko zabala osatzen diote bakoitzari. Liburua identifikatzeko beharrezko diren datuak jaso eta biltzen dituzte. Liburu batzuek, aspaldikoak izateaz gain hondatuxeak daudenean, nahikoa zailtasun sortzen diete. Hala ere, profesionaltasun guztiaz ari dira beren lana egiten.

Lan luzea aurrean daukatena. Kalkulatzen dute zortzi edo bederatzi mila inguru izan daitezkeela katalogatu beharreko liburuak. Titulu osoa, egilea, garaia eta bestelako datu interesgarri guztiak jasotzen dituzte, aipatuz zein den liburuaren gaia. Hizkuntzak ere askotarikoak dira: latina, frantsesa, espainola... eta hori ere adieraziko da lan honetan. Inkunableen erreferentzia bat ere jasoko dute. Lehenengo epea abendurako jarrita daukate, baina auskalo!

Hori guztia zertarako baina? Osatzen den datu-basea Euskadiko Katalogo kolektiboan sartuko dute. Eta bide horretatik, Estatuko Katalogo orokorrageo batean. Nahiz maila batean nahiz bestean, kontua da erabilgarri izatea, eta Arantzazun daukagun ondarea ahal bezainbat sozializatzea. Ez al da, bada, globalizioaz hitz egiten? Lan honek globalizazioaren alderdi onetako bat erakutsiko luke, inolako zalantzarik gabe.

Naiara, Olaia eta Vanesa ari dira hemen egunero lanean. Ordenagailua eta liburua aurrean dituztela majo saiatzen dira. Lan gutxi eman eta asko egin, hori da lema. Eskerrik asko hirurei eta lan hau martxan jarri dutenei.